



**ARRASATEKO UDALAK 2013  
URTERAKO EZARRI DITUEN  
DIRULAGUNTZA PROGRAMEN  
DEIALDI IREKIA.**

**CONVOCATORIA PÚBLICA DE LOS  
DIFERENTES PROGRAMAS DE  
SUBVENCIONES ESTABLECIDOS POR  
EL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE  
PARA EL AÑO 2013.**

**ZIOEN AZALPENA**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Arrasateko Udalak diru-laguntzak eta laguntzak ematea jasotzen du 2013ko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan, udal intereseko kontsideratzen diren eremu eta diziplinetan hainbat elkartek eta entitatek garatzen dituzten ekintza askotarikoetan laguntzeko diren jarduerak, bai herri erakundeek landu ez dituzten ekimenak direlako nahiz erakunde horiek lantzen dituzten ekintzei buruz izaera osagarria daukatelako.

El Ayuntamiento de Arrasate contempla en los presupuestos municipales aprobados para el ejercicio 2013 la concesión de subvenciones y ayudas destinadas a colaborar en las múltiples actividades que asociaciones y entidades diversas desarrollan en diferentes ámbitos y disciplinas consideradas de interés municipal, bien por tratarse de iniciativas no abordadas desde las Instituciones Públicas, o bien porque tienen un carácter complementario respecto de las abordadas por éstas.

Eman behar diren diru-laguntzen bidez lagundu nahi diegu elkarte eta entitate horiei, zenbait eremutan esku hartzen, adibidez, kirola eta kultura sustatzen, irakaskuntzan kalitatea hobetzen, euskararen erabilera bultzatzen, herritarren parte hartzea udal kudeaketan, boluntarioak sustatzen, garatu gabeko herrialdeetan lankidetzako proiektu solidarioak egiten, hirugarren adinekoak beren interesen kudeaketan dinamizatu eta inplikatzeko, kohesio soziala sustatzen eta hobetzen, gizarte egoera ahuleko taldeentzako laguntzak, emakume eta gizonen berdintasuna eragin eta sustatzeko ekintzak, gizarte elkartegintza, garapen iraunkorra, ingurumen hezkuntza eta ingurumen kontzientziatzea eta enplegu sorkuntza..

A través de las subvenciones a conceder se pretende colaborar con dichas asociaciones y entidades en la intervención en diferentes ámbitos, como pueden ser la promoción del deporte y la cultura, la mejora de la calidad en la enseñanza, el fomento del euskera, la participación activa de la ciudadanía en la gestión municipal, el fomento del voluntariado, la ejecución de proyectos solidarios de cooperación en países no desarrollados, la dinamización e implicación de la tercera edad en la gestión de sus intereses, la promoción y mejora de la cohesión social, las ayudas a colectivos económicamente desfavorecidos, actuaciones para promover la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, el asociacionismo juvenil, la sostenibilidad, la educación y concienciación medioambiental y la generación de empleo.

Horregatik guztiagatik, bere aurrekontu baliabideen esparruan, lehia askeko deialdi irekia egiten du Arrasateko Udalak, 2013ko urtealdian garatu beharreko proiektuetarako laguntzak eta diru-laguntzak emateko.

Por todo ello, el Ayuntamiento de Arrasate realiza, en el marco de sus recursos presupuestarios, convocatoria pública de libre concurrencia para ayudas y subvenciones a proyectos a desarrollar a lo largo del ejercicio



**Esp. kodea:** 2013RBAR0015  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2013 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2013/05/02

Deialdi honek diru-laguntza ezberdinak jasotzen ditu agiri bakar batean, diru-laguntza hartzaileei araudi erreferentzia bakar bat emateko, eta aldi berean espedienteak izapidetzean egin behar diren administrazio gestioak samurtzen dira. Jasotzen dira, beste horrenbeste eranskinetan jasota, 22 programa, ezberdin, eta horietan sartzeko udal sail hauek eta erakunde autonomo hauek haien eskumenen eremuan ematen dituzten laguntzak:

- Kultura
- Euskara
- Hezkuntza
- Gizarte Ongizate
- Berdintasuna
- Gazteria
- Ingurumena
- Enplegua
- AUKEA Kirol Erakunde Autonomoa
- Hirigintza

Deialdi honetan hauek ezartzen dira:

1. Oinarri-arau orokorrak, diru-laguntzak ematea erregulatzeko Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera, Udalbatzarrak behin betiko onartu zuena 2004ko uztailearen 26an, eta Diru-laguntzen azaoaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera, finkatzen dituztenak deialdi guztienak diren xedapen orokorrak, eskabidea egiteko jarraitu beharreko

2013.

La presente convocatoria reúne en un único documento de líneas de subvención distintas, con el fin de procurar a las asociaciones y entidades destinatarias de las ayudas económicas una única referencia normativa, al tiempo que se facilitan las gestiones administrativas que conlleva la tramitación de los expedientes. Se contemplan, recogidas en otros tantos anexos, hasta 22 diferentes programas, que incluyen las ayudas que conceden en el ámbito de sus competencias, las siguientes Áreas Municipales y Organismos Autónomos:

- Cultura
- Euskara
- Educación
- Bienestar Social
- Igualdad
- Juventud
- Medio Ambiente
- Empleo
- Organismo Autónomo Deportes AUKEA
- Urbanismo

En la presente convocatoria se establecen:

1. Bases generales, de conformidad con lo establecido en la Ordenanza Municipal reguladora de la concesión de subvenciones, aprobada definitivamente por el Ayuntamiento Pleno el 26 de julio de 2004, y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que fijan las disposiciones generales comunes a todas las convocatorias,



**Esp. kodea:** 2013RBAR0015  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2013 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2013/05/02

prozedura, onuradunak, eskatzaileei eskatzen dizkieten baldintzak, aurkezteko epeak, laguntzak jasotzeko zenbateko globala, eman beharrekoa, diru-laguntza zertarako den justifikatzea, diru-laguntzak ordaintzea eta abar.

2. Oinarri-arau espezifikoak, sail edo erakunde autonomo bakoitzak ezartzen dituenak, haien eskumeneko eremuetan; sail horietan zehazten dira laguntza programa bakoitzaren berezitasunak, besteak beste, diru-laguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar.

procedimiento a seguir para la solicitud, beneficiarias, requisitos exigidos a las personas solicitantes, plazos de presentación, importe global destinado a estas ayudas, concesión, justificación del destino de la subvención, abono de las subvenciones, etc.

2. Bases específicas, que cada área u Organismo Autónomo establece, dentro de los ámbitos de su competencia, donde se concretan las particularidades de cada programa de ayudas, entre otras, los criterios de asignación y reparto de la subvención, la posibilidad de concesión de anticipos, documentación a presentar, etc.

## **OINARRI-ARAU OROKORRAK**

### **I. XEDEA**

#### **1. Artikulua**

2013ko urterako diru-laguntzak eta laguntzak emateko prozedura orokorra erregulatzan dute oinarri-arau hauek; horren kudeaketa Arrasateko Udalarari eta haren erakunde autonomoei dagokie.

#### **2. Artikulua**

Deialdia onartu da Tokiko Gobernu Batzordeak 2013ko maiatzaren 27an hartutako akordioaren bidez, Ogasun Batzordearen proposamenez, batzorde informatzaileek eta AUKEAko Zuzendaritza Batzordeak (kirolari buruzko diru-laguntzen kasuan) eztabaidatu eta txostena egin eta gero.

## **BASES GENERALES**

### **I. OBJETO**

#### **Artículo 1.**

Estas bases regulan el procedimiento general para la concesión de subvenciones y ayudas para el año 2013, cuya gestión corresponde al Ayuntamiento de Arrasate y sus Organismos Autónomos.

#### **Artículo 2.**

Esta convocatoria ha sido aprobada mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 27 de mayo de 2013, a propuesta de la Comisión de Hacienda, previa deliberación e informe de las diferentes Comisiones Informativas y de la Junta Rectora de AUKEA (en el caso de las subvenciones en materia de deporte).



Oinarri-arauok behar bezala zabaldu eta argitaratu daitezten, oso-osorik argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta udaletxeko iragarkien taula orokorrean. Gainera, halaxe eskatzen duten interesdunen eskura dago horien kopia bat sail guztietan eta udaleko departamentu guztietan.

### 3. Artikulua

Oinarri-arauok eta diru-laguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte diru-laguntza hauek ematea eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa.

Oinarri-arau espezifikoek berariaz beste erregulazio mota bat ezartzen ez badute, behintzat, oinarri-arau orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie Udalak onartutako laguntza edo diru-laguntza programa guztiei.

“Lanpostu berriak sortzeagatik enpresei laguntzeko programa”ri dagokionez, deialdi honetan jasotako beste programen aldean hain izaera ezberdinekoa denez, deialdi orokor honetako 8.1 eranskinean zehaztutako oinarri-arau espezifikoak eta oinarri-arauak ezarriko zaizkie. Oinarri-arau espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri-arau orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Oinarri-arauotan agertzen ez den guztian, aplikatuko dira Arrasateko Udalaren diru-laguntzak ematea arautzen duen Ordenantza, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta gai honi aplikatu dakizkiokeen gainerako arauak, betiere indarrean daudenak.

Para garantizar la adecuada difusión y publicidad de las presentes bases se procederá a su publicación íntegra en el Boletín Oficial de Gipuzkoa así como en el Tablón General de Anuncios del Ayuntamiento, existiendo además a disposición de las personas interesadas que lo soliciten una copia de las mismas en todas las Áreas y departamentos municipales afectados.

### Artículo 3.

La concesión de estas ayudas y la relación jurídica entre el Ayuntamiento y entidad beneficiaria se registrá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

Salvo que las bases específicas establezcan expresamente otro tipo de regulación, las disposiciones y requisitos establecidos en las presentes bases generales serán de aplicación a todos los programas de ayuda o subvención aprobados por el Ayuntamiento.

En lo referente al “Programa de ayuda a empresas por la creación de puestos de trabajo”, debido a su carácter diferenciado respecto del resto de programas recogidos en esta convocatoria, serán de aplicación las disposiciones y requisitos establecidos en sus propias bases específicas que figuran en el anexo 8.1 de esta convocatoria general y, en lo no regulado por las bases específicas reguladoras del citado programa, se estará a lo dispuesto en las bases generales.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, General de Subvenciones, y demás normativa vigente aplicable a esta materia.



## II. ONURADUNAK

### 4. Artikulua

Laguntza jaso ahal izango dute, batez ere, Arrasaten egoitza eta jardun eremua daukaten pertsonak eta elkarteak edo entitateak. Salbuespen gisa, nahiz eta Arrasaten egoitza ez izan, bere jardun eremua Arrasaten edota bere jardueraren zati nabarmen bat udalerrian garatzen bada edo Udalak ekintza edo proiektua udalerrientzat interesgarri jotzen bada.

Elkarteak edo entitateak izena emanda izan behar dute Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan edo beste erregistro publiko batzuetan, eta identifikazio fiskaleko kodearen jabe izan.

Salbuespenez, eta diru-laguntza eskabideak 2.000 eurotik beherakoak izanez gero, onuradun izaera izan ditzakete pertsona fisiko edo juridikoen taldeak, publikoak edo pribatuak, ondasun erkidegoek edo, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, udal laguntza edo udal diru-laguntza lortu dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi dituzten edozelako unitate ekonomikoek edo ondare berezietan.

## II. PERSONAS BENEFICIARIAS

### Artículo 4.

Podrán optar a estas ayudas, principalmente, aquéllas personas y asociaciones o entidades que tengan su sede y ámbito de actuación en Arrasate, y, excepcionalmente, aquéllas otras entidades que, aún no teniendo su sede o su ámbito de actuación en Arrasate, desarrollen actividades o proyectos considerados de interés por parte del Ayuntamiento.

Las Asociaciones o Entidades deberán hallarse inscritas en el Registro de Asociaciones de la Comunidad Autónoma u otros registros públicos, y hallarse en posesión del correspondiente código de identificación fiscal.

Excepcionalmente, y para el supuesto de solicitudes de subvención por importe inferior a 2.000 euros, podrán acceder a la condición de beneficiaria las agrupaciones de personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, las comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aún careciendo de personalidad jurídica, pretendan llevar a cabo proyectos o actividades susceptibles de obtención de la ayuda o subvención municipal.



### III. ESKABIDEAK ETA AURKEZTEKO EPEA

#### 5. Artikulua

Aurkeztutako laguntza eskabideak honela idatziko dituzte eskatzaileek, Udalak egindako eskabide ereduaren arabera, oinarri-arauotan eranskin gisara datorrena, eta interesa duten guztici emango zaiena, bai BAZen (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua) bai dirulaguntzen administrazio tramitearen ardura duten udal sailetan eta udal bulegoetan (besteak beste, Gazteen Informazio Bulegoa, Emakume Txokoa, Musakolako kiroldegia), bai eta udalaren web orrian ere ([www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)).

Aurreko paragrafoan aipatutako eskabide eredia beteko du Elkarte edo entitate eskatzailearen pertsona ordezkariak edo erantzuleak.

#### 6. Artikulua

Oro har, eta beste epe batzuk jarrita dituzten laguntza programak izan ezik, 30 egun balioduneko epean aurkeztu behar dira eskabideak, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

### IV. EKARRI BEHARREKO AGIRIAK

#### 7. Artikulua

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko ditu eskatzaileak nahitaez, kontuan izanik laguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoetan eskatutako dokumentazioa ere aurkeztu beharko dutela, eta eskatzaileak interesgarritzat jo ditzakeen beste agiri batzuk ere bai:

### III. SOLICITUDES Y PLAZO DE PRESENTACIÓN

#### Artículo 5.

Las solicitudes de ayudas que se presenten, se redactarán de conformidad con el modelo de instancia elaborado por el Ayuntamiento, que figura como anexo de las presentes bases, que se facilitará a todos los interesados, tanto en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía) como en los diferentes departamentos y dependencias municipales (entre otras, la Oficina de Información Juvenil, Emakume Txokoa, Polideportivo Musakola) encargadas del trámite administrativo de las subvenciones, así como en la página web municipal ([www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)).

La persona representante o responsable de la asociación o entidad solicitante cumplimentará el modelo de instancia citado en el párrafo anterior.

#### Artículo 6.

Con carácter general, y con la excepción de aquellos programas de ayuda que tengan establecidos otros plazos, las solicitudes deberán presentarse en el plazo de 30 días hábiles, contado a partir del día siguiente al de publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

### IV. DOCUMENTACIÓN A APORTAR

#### Artículo 7.

Las solicitudes deberán ir acompañadas obligatoriamente, sin perjuicio de la documentación que sea exigida en las bases específicas de cada programa de ayudas y de aquélla otra que el solicitante considere de interés, de la siguiente documentación:



**Esp. kodea:** 2013RBAR0015  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2013 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2013/05/02

a) Entitate eskatzailearen pertsona ordezkariaren edo erantzulearen NAREN fotokopia.

a) Fotocopia del DNI de la persona representante o responsable de la entidad solicitante.

b) Hala badagokio, Identifikazio Fiskaleko Kodearen fotokopia (IFK).

b) Copia del CIF de la entidad, en su caso.

c) Memoria, elkarre edo entitatearen jarduera orokorrarena nahiz diruz laguntzea nahi duen proiektu, jarduera edo programarena, eta adieraziko dituzte zer helburu lortu nahi duten proiektu, jarduera edo programa horrekin, bai eta zergatik, eskatzailearen iritziz, uste duen merezi duela udalaren laguntza edo dirulaguntza.

c) Memoria tanto de la actividad general de la asociación o entidad, como del proyecto, actividad o programa específico que pretende ser subvencionado, con indicación de los objetivos perseguidos con dicho proyecto, actividad o programa, así como de los motivos o razones que, a juicio del solicitante, le hacen merecedora de la ayuda o subvención municipal.

d) Gastuen eta sarreren aurrekontua, entitate edo elkarrearen jarduera orokorrarena (ekintza guztiak) nahiz dirulaguntza eskatzen deneko proiektu, jarduera edo programa espezifikoa.

d) Presupuesto de Gastos e Ingresos, tanto de la actividad General (todas las actividades) de la entidad o asociación, como de los proyectos, actividades o programas específicos para los que se solicite la subvención.

e) Zinpeko adierazpena, non-eta, hala badagokio, agertuko duen beste diru-sarrera batzuk daudela (kuotak, material salmentak, fakturazioak, beste erakunde batzuen dirulaguntzak eta abar) eta/edo beste sail, erakunde eta abarretan diru-laguntza eskatu duela.

e) Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos (cuotas, ventas de material, facturaciones, subvenciones de otros entes, etc.) y/o solicitudes de subvención realizadas ante otros departamentos, instituciones, etc.

f) Eskabidearen aurreko urteari dagozkion gastu eta diru-sarreren likidazio erreala edo balioetsia (noiz egin den kontuan izanik), entitatearen jarduera orokorrari buruz nahiz diru-laguntza xede duen proiektu, jarduera edo programa espezifikoa buruz, baldin eta jarduera horiek iaz eginda badaude.

f) Liquidación real o estimada (en función de las fechas en que se haya llevado a cabo) de los gastos e ingresos correspondientes al año anterior al de la solicitud, relativa tanto a la actividad general de la entidad como al proyecto, actividad o programa específico objeto de subvención, caso de que dichas actividades hubieran sido llevadas a cabo el año pasado.

Ez dago zertan aurkeztu agiri horiek Udalari edo Erakunde Autonomoari entregatu bazaizkio iazko diru-laguntzen justifikazioa egitean.

No será necesario presentar esta documentación en el supuesto de haber sido entregada al Ayuntamiento u Organismo Autónomo con ocasión de la justificación de las subvenciones correspondientes al año anterior.



**Esp. kodea:** 2013RBAR0015  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2013 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2013/05/02

g) Egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, Arrasateko Udalarekin eta haren erakunde autonomoekin eta Foru Ogasunarekin (edo Estatuko Ogasunarekin, hala badagokio).

Gizarte Segurantzaren ziurtagiriari dagokionez, erakunde horri kotizazioa egiteko eskatzen duen lan harremanik ez duten entitateen kasuan, egunean egotearen egiaztatzea barik entitatearen ordezkariaren zinpeko adierazpena egin dezake, aipatu horri buruz (lan harremanik ez duela eta, hortaz, kotizatzeke obligaziorik ez duela). Edozelan ere, zinpeko adierazpen hori bat etorri behar da gastuen eta diru-sarrearen egiturarekin eta diru-laguntza eskatzeko nahiz diru-laguntza zertarako den justifikatzeko aurkeztutako gainerako agirien egiturarekin.

Artikulu honetako c) eta d) hizkietan eskatutako agiriak, 2.000 eurotik beherako diru-laguntza eskabideak egiten direnean, nahitaez ekarri beharko da laguntza xede duen proiektua edo jarduera aipatzen duena bakarrik.

Halaber, diru-laguntza eskabideak 2.000 eurotik beherakoak izanez gero, artikulu honetako g) puntuan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharrean, interesdunaren edo entitatearen ordezkariaren zinpeko adierazpena aurkeztu ahal izango da, zerga obligazioak betetzen dituela adierazteko.

g) Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Arrasate y sus Organismos Autónomos y la Hacienda Foral (o Estatal si procediera).

En relación con el certificado de la Seguridad Social, en los casos de aquellas entidades en las que no exista relación laboral alguna que requiera cotización a dicho organismo, la acreditación de estar al corriente podrá ser sustituida por una declaración jurada de la persona representante de la entidad en el sentido indicado (inexistencia de relaciones laborales y, por tanto, de obligación de cotización). En todo caso, dicha declaración jurada deberá ser coherente con la estructura de gastos e ingresos y resto de documentación presentada tanto para la solicitud de subvención como para la justificación del destino de la misma.

La documentación requerida en las letras c) y d) del presente artículo, para el supuesto de solicitudes de subvención por importe inferior a 2.000 euros, únicamente será obligatoria la que haga referencia al proyecto o actividad objeto de la ayuda.

Asimismo, en los casos de solicitudes de subvención por importe inferior a 2.000 euros, la documentación solicitada en el punto g) del presente artículo podrá ser sustituida por una declaración jurada de la persona interesada o representante de la entidad de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.





## 8. Artikulua

Eskabideak edo harekin batera doan nahitazko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten duen hurrengo egunetik hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Horiek zuzendu barik emandako epea igaroz gero, ez da onartuko diru-laguntza eskabidea, eta beste tramiterik gabe artxibatu egingo da prozedura.

## 9. Artikulua

Eskabide inprimakiak, behar bezala beteta, BAZen (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua) - Udaletxeko Erregistro Orokorrean edo Musakolako kiroldegiko bulegoetan (kirolari buruzko diru-laguntzak egiteko), jendearentzako orduetan:

### BAZ

- Astelehenetik egubakoitzera arte, 8:30–19:00.
- Zapatuan: goizean, 9:00 – 13:00.

**Abuztuaren 1etik 31ra** bitartean, jendearentzako ordutegia hau izango da:

- Astelehenetik egubakoitzera arte, 8:30– 14:00.
- Zapatuan: itxita

### AUKEA

- Astelehenetik eguenera arte, 9:00– 20:00.
- Egubakoitzean: 9:00-15:30.

AUKEAn **uztailaren 1etik abuztuaren 31ra** bitartean, jendearentzako ordutegia goizean

## Artículo 8.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o se valore como incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento para subsanar los defectos detectados.

Transcurrido el plazo concedido sin que éstos hayan sido subsanados, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, procediéndose sin más trámite al archivo del procedimiento.

## Artículo 9.

Los impresos de solicitud debidamente cumplimentados podrán ser entregados en el BAZ (Servicio de Atención a la Ciudadanía) - Registro General del Ayuntamiento o en las oficinas del Polideportivo de Musakola (para las subvenciones de deporte), dentro de los horarios de atención al público:

### BAZ

- Lunes a viernes – de 8:30 a 19:00.
- Sábados: mañana, de 9:00 a 13:00.

Durante el periodo comprendido **entre el 1 y el 31 de agosto** el horario de atención al público será:

- Lunes a viernes: de 8:30 a 14:00.
- Sábados: cerrado

### AUKEA

- Lunes a jueves – de 9:00 a 20:00.
- Viernes: 9:00 – 15:30.

Durante el periodo comprendido **entre el 1 de julio hasta el 31 de agosto** el horario de atención al público en AUKEA será



**Esp. kodea:** 2013RBAR0015  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2013 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2013/05/02

izango da, 9:00 – 15:30.

Eskabide inprimakiaren ale bat eskatzailearen esku geratuko da eta beste alea Sarrera Erregistroan, eta hortik bidaliko dute dagokion sailera, izapidetu dezaten.

## V. ERABAKIA

### 10. Artikulua.

Zein den laguntza programa, halako administrazio unitateak edo udal arloak izapidetuko du aurkeztutako eskabidea, eta horiek arduratuko dira bere eskumenen eremuari dagozkion proiektuak aztertzen eta ebaluatzen.

Kirol gaitan, AUKEA Erakunde Autonomoaren departamentu teknikoari egokituko zaio tramitazio hori.

### 11. Artikulua.

Administrazio unitate edo udal arlo bati baino gehiagori eraginez gero proiektuek, aztertu egingo dira eta haien txosten global bat egin, inplikaturik dauden sailek batera sinatutako agiri edo txosten baten bidez.

### 12. Artikulua.

Zerbitzu teknikoek txostena egin eta gero, gaiaren eskumeneko batzordeburuak, diktamena egin aurretik, hala badagokio, akordio proposamena egingo dio organo eskudunari, onartu dezan.

Horri buruz, kirol arloko laguntzak edo dirulaguntzak emateko, AUKEA erakunde Autonomoko Zuzendaritza Batzordea izango

exclusivamente de mañana, de 9:00 a 15:30.

Un ejemplar del impreso de solicitud quedará en poder de la persona solicitante y el otro ejemplar quedará en el propio Registro de Entrada, que se encargará de dar el traslado oportuno al departamento o área competente para su tramitación.

## V. RESOLUCIÓN

### Artículo 10.

La tramitación de las solicitudes presentadas corresponderá, por razón del programa de ayudas que se trate, a las diferentes unidades administrativas o áreas municipales, que serán las encargadas del examen y evaluación de los proyectos correspondientes al ámbito de sus competencias.

En materia de deporte, dicha tramitación corresponderá al departamento técnico del Organismo Autónomo AUKEA.

### Artículo 11.

Caso de proyectos que afecten a más de un departamento o área municipal, se procederá al análisis e informe global del mismo, mediante documento o informe suscrito conjuntamente por las unidades administrativas o áreas implicadas.

### Artículo 12.

Emitido informe por parte de los servicios técnicos correspondientes, la Presidencia de la Comisión Informativa competente por razón de la materia, previo dictamen, en su caso, de ésta, elevará la propuesta de acuerdo al órgano competente para su aprobación.

A este respecto, para la concesión de ayudas o subvenciones en materia de deporte el Órgano competente será la Junta Rectora del



**Esp. kodea:** 2013RBAR0015  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2013 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2013/05/02

da organo eskuduna. Gainerako laguntzak edo diru-laguntzak emateko, espetxeetan preso dauden pertsonen senideen garraino gastuetarako laguntza programan izan ezik, hori onartzea Gizarte Ongizateko zinegotzi ordezkariari baitagokio, Tokiko Gobernu Batzarra izango da erabakia hartzeko organo eskuduna.

### 13. Artikulua.

Laguntza edo diru-laguntza eman edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, egiaztaturik egongo dira hartzen den erabakiaren oinarriak, deialdiaren oinarri-arauetan agintzen dituzten irizpide objektiboei buruz.

Erabakian, eskatzaileari jakinaraziko zaiona, berariaz agertuko dira hauek guztiak, xedea, eskatzailea edo diru-laguntza jasoko dutenen zerrenda, zenbat jasoko duten, nola ordainduko zaien, nola justifikatu behar duten eta Oinarri-arau Orokor hauetan eskatutako gainerako baldintzak eta betebeharrak, dagozkion Oinarri Espezifikoeetan edo diru-laguntza ematen den unean indarrean dauden arauetan, eta halaber, berariaz, onartu ez diren edo ukatu diren eskabideen zerrenda agertuko da.

Era berean, udal erabakian azalduko dira horren aurka jarri daitezkeen errekursoak, bai eta zein organo judizialean aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epea ere bai, kontuan izanik interesdunek bidezkoztat jotzen duten beste edozein errekurso ere jarri dezaketela.

Orobat, diru-laguntzak emateko akordioetan 10 egun balioduneko epea emango zaie onuradunei, adierazi dezaten onartu dutela. Ulertuko da inplizituki onartu dutela, horretarako emandako epean besterik adierazten ez badute.

Organismo Autónomo AUKEA. Para el resto de ayudas o subvenciones, con la excepción del programa de ayudas para gastos de transporte de familiares de personas internas en centros penitenciarios, cuya aprobación corresponde a la Concejalía Delegada de Bienestar Social, el órgano competente para la adopción de la resolución será la Junta de Gobierno Local.

### Artículo 13.

La resolución de concesión o denegación, según proceda, de la ayuda o subvención deberá ser motivada, y, en todo caso, deberán quedar acreditados los fundamentos de la resolución que se adopte, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen en la norma o bases de la convocatoria.

En la resolución, que se notificará a la persona solicitante, se hará constar expresamente el objeto, solicitante o relación de solicitantes a quienes se concede la subvención, su cuantía, la forma de pago, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en estas Bases Generales, en las Bases Específicas correspondientes o en la normativa vigente en el momento de su concesión, y asimismo se indicará, de manera expresa, la relación de solicitudes que han sido desestimadas o rechazadas.

Igualmente, en la resolución municipal se indicarán los recursos que contra la misma procedan, así como el órgano judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que las personas interesadas puedan ejercitar cualquier otro que estimen conveniente.

Asimismo, en los acuerdos de concesión de subvenciones se otorgará a las personas beneficiarias un plazo de 10 días hábiles, al objeto de que éstos manifiesten su aceptación. Se entenderá que ésta ha sido implícitamente aceptada si en el plazo concedido al efecto no



#### 14. Artikulua.

Erabakiak eman eta jakinarazteko gehieneko epea izango da 2 hilekoa, deialdi honetan adierazten den eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita. Artikulu honetan xedatutako epeari dagokionez, abuztua baliogabeko hilabetetzat hartuko da. Epe hori igarotakoan, berariazko erabakirik eman gabe, ulertuko dugu eskabidea ez dela onartu.

Jakinarazteko prozesua erraztu, arindu eta samurtzeko, diru-laguntza eskatzen duten entitateek, borondatez, Udalari adierazi diezaiokete zein helbide elektronikotan jaso nahi dituen eskabidearen tramitazioaren ondorioz Udalak bidaltzen dituen dokumentazioa eta komunikazioak.

Helbide elektronikoa emanez gero, horren bidez egindako tramiteek Administrazio Prozeduraren Legean legez jasota dauden ondorioak izango dituzte, jakinarazteari dagokionez. Hori guztia, kontuan izanik akatsen bat egin daitekeela baina diru-laguntza eskatu duen entitateari egotzi ezin dakiokena, eta hala dela egiaztatuz gero Udalak zuzendu eta bermatu beharko luke legez eskatu daitezkeen tramiteak behar den moduan bete dituela.

Emandako diru-laguntza guztien publizitatea egingo du Udalak, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan aurreikusitakoaren eran.

se efectúa manifestación alguna.

#### Artículo 14.

El plazo máximo para dictar y notificar las resoluciones que correspondan será de 2 meses, contado a partir de la finalización del plazo para presentación de solicitudes indicado en la presente convocatoria. A los efectos del plazo establecido en este artículo, el mes de agosto se considerará inhábil. Transcurrido este plazo sin que se haya dictado resolución expresa, se entenderá que la solicitud ha sido desestimada.

A efectos de simplificar, agilizar y facilitar el proceso de notificaciones, las entidades solicitantes de subvenciones, con carácter voluntario, podrán facilitar al Ayuntamiento la oportuna dirección de correo electrónico en la que desean recibir la documentación y comunicaciones municipales derivadas de la tramitación de su solicitud.

En el supuesto de que haya sido facilitada la dirección de correo electrónico, los trámites llevados a cabo por dicho medio surtirán los efectos legalmente previstos en la Ley de Procedimiento Administrativo respecto de la práctica de notificaciones. Todo ello, sin perjuicio de la posibilidad de error no imputable a la entidad solicitante de la subvención, cuya acreditación supondría la necesidad para el Ayuntamiento de subsanar y garantizar el correcto cumplimiento de los trámites legalmente exigibles.

El Ayuntamiento dará publicidad a todas las subvenciones concedidas, en la forma prevista en el artículo 18 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



## VI. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK

### 15. Artikulua.

Diru-laguntza emanaz gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotako ez gain, hauek ere entitate onuradunaren obligazioak dira:

a) Helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo diru-laguntza ematea oinarritzen duen jokabidea hartzea.

b) Diru-laguntza eman duen organoari justifikatzea betebeharrak eta baldintzak bete izana, bai eta ekintza gauzatu izana eta diru-laguntza jasotzeko edo erabiltzeko helburua bete izana ere.

c) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.

d) Diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazi beharko du horien berri izan eta berehala, eta edozelan ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

e) Egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, Arrasateko Udala eta haren erakunde autonomoekin, Foru Ogasunekin eta Estatuko Ogasunekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.

## VI. OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES BENEFICIARIAS

### Artículo 15.

En caso de concesión de subvención, además de las recogidas en las bases específicas, son obligaciones de la entidad beneficiaria las siguientes:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el órgano concedente, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto estatales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos.

e) Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social, el Ayuntamiento de Arrasate y sus Organismos Autónomos, las Haciendas Foral y Estatal y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.



f) Kontabilitate liburuak, eginbideko erregistroak eta gainerako agiriak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritza eta sektore legeriak exijitutako terminoetan, behar bezala auditaturik, baldin eta indarrean dagoen arauditik edo deialdi honetatik ateratzen bada betebehar hori; bai eta diru-laguntzak arautzeko oinarriek exijitzen dituzten kontabilitate egoerak eta erregistro bereziak ere, egiaztatu eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatze aldera.

g) Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezten.

h) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Arrasateko Udalak edo haren erakunde autonomoek diruz lagundu dutela, eta baldintza hauek bete behar dira:

- Diru-laguntza jasotzen duen jarduerari buruzko publizitatea edota erabiliko diren kartel, ohar eta abarrak euskaraz edo, gutxienez, ele bietan idatzi beharko dira. Ele bietan idatzitako testuetan euskarazko zatia bereziki nabarmendu beharko da.

- Jarduarekin, proiektuarekin edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez du erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik.

i) Jasotako fondoak itzultzea, dirul-aguntzak eman eta kudeatzea arautzen dituen Udal Ordenantzaren 20. artikuluan agertzen diren kasuetan.

f) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, debidamente auditados, si de la normativa vigente o de la presente convocatoria se desprende dicho requisito, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

h) Adoptar las medidas de difusión de la actividad subvencionada, en las que se haga constar la colaboración, mediante subvención, del Ayuntamiento de Arrasate o sus Organismos Autónomos, cumpliendo las siguientes condiciones:

- La publicidad relativa a la actividad objeto de subvención o bien los carteles, avisos, etc. que se utilicen deberán redactarse en euskera o, al menos, en bilingüe. En los textos redactados en bilingüe deberá destacarse especialmente la parte redactada en euskera.

- En los anuncios y comunicaciones asociadas con la actividad, proyecto o programa no se utilizará ni lenguaje ni imágenes sexistas.

i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 20 de la Ordenanza Municipal reguladora de la Concesión y Gestión de Subvenciones.



j) Behar beste baimen lortzea, diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.

k) Jarduera zelan garatzen ari den adieraztea, Udalaren eta erakunde autonomoaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.

l) Diru-laguntza eman duen organoari jakinaraztea, diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero.

j) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

k) Facilitar información sobre el desarrollo de la actividad, de cara al seguimiento y posible colaboración por parte del Ayuntamiento u Organismo Autónomo.

l) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

## VII. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

### 16. Artikulua.

Laguntza programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoa jasotzen direnak izango dira; oinarri-arau hauen eranskin moduan agertzen dira.

Hala eta guztiz, kontuan hartuko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten proiektu, neurri, ekimen, jarduera eta abar hartzen dituzten proiektuak.

## VIII. DIRUZ LAGUNTZEKO GASTU KONTZEPTUAK

### 17. Artikulua.

1. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuten diotenak eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri-arauek ezarritako epean egiten direnak.

Diru-laguntzak emateko deialdia arautzen duten

## VII. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

### Artículo 16.

